

Munitibar

Aulesti

Gizaburuaga

Lekeitio

Lea ibarra

09





# 09

## **Lea ibarra**

Ibilbide honetarako BI-3231 eta BI-3447 errepideak hartu behar dira. Bizkaian biztanlerik gutxien duen eskualdea eta, aldi berean, ezezagunena dena zeharkatuko dugu, Lekeitioko portuan bukatzeko.

Ibilbidea egiteko, Zornotza eta Gernika bitarteko bidearen erdian, Zugaztietako bidegurutzean hain zuzen ere, eskuin aldera egin beharko dugu. Bizkaiko behatokitik abiatuta, bihurgunez beteriko eta bide bazterrean etxebizitza gutxi agertzen duen errepidean gora egin ondoren, beherantz hasiko gara, Lea ibaiaren goiko arrora jaisteko, antzina bi herri zirenak bat eginda dauden lurretara: Munitibarrera.



*Aurreko orrialdean:*

*Zubieta Jauregia, Lekeitio aurrean.*

*Adan de Jarza leinukoek interesak zeuzkaten Lekeitioan, eta jauregi hau beren oinetxe.*

*93. orrialdea:*

*Aulestiko kale bat. Bizkaiko «uriak» ere urbanizatzen dira. Aulestik luzeka egiten du, kale bihurtuko den bide baten alboetan.*

### **Munitibar**

Oiz mendiaren iparraldeko isurialdean kokatuta, hiribildu batek –Gerrikaitzek – eta elizate batek –Arbatzegik– 1883tik hona herri zerbitzuak elkarrekin konpartitzen dituzte. Biak historia luzeko parrokiak dira.

#### **Gerrikaitzeko Andra Maria eliza**

Errepidearen goiko aldean, eskuin aldera, habearte bakarreko eraikina, 1847an berreraikia, Hermenejildo Belauntzarako diseinaturikoa. Dorreak, burualdean hegoaldeko aldetik txertatuta egonik, fuste bat dauka, tenpluaren mailarekin bat egiten duena, eta horren gainean kanpandorra, oktagonala.

#### **Arbatzegiko Done Bikendi eliza**

Habearte luze bat du, gehi burualdea eta bi kapera, gurutzadurako besoen itxuran. Erdi Aroan sortutakoa da, baina ez zaio geratzen garai hartako arrastorik. Dorrea alde batera utzita, 1724an egin baita, gainerakoa Mariano Jose Laskurainen planoei jarraituta 1848an egindako konponketaren emaitza da.

**Erretaula nagusia.** Estilo barroko garbi-garbikoa, Pedro Albiz erretaula-egileak 1685ean eginda, eta mahatsondo-irudiak agertzen dituzten zutabe salomonikoak ditu.

**Alboetako erretaulak.** Barrokoak, suge itxurako apaingarriak dituzten zutabeekin. 1660 urte ingurukoak, euskarri dokumentalik gabekoak. Erretaula horietako taila bat, Ama Birjina Umearekin izenekoa, XIV. mendeko Andra Mari gotikoa da.

### **Aulesti**

Herri hau Murelaga elizatearen erdian dago kokatua eta horrek azaltzen du, nolabait, berez duen hirigintza-mailako itxura: etxeak bide zaharraren alboetan eraikita, elkarri itsatsita. Bidearen tarte honetan, eskuin aldera, soilgune bat dugu; horretan parrokiako eliza, udaletxea eta beste hainbat eraikin zibil daude eraikita; eraikin

horietariko batzuk, kaleko etxeen antzera, neoklasikoak dira.

### **Udaletxea**

Arkupedun eraikin etzana, estilo neoklasiko zorrotz-zorrotzekoa. Ataripean bederatzi arku dauzka, eta bi solairu. Aparailua: beheko solairuan harlanduzko lanak, besteak, berriz, luzituta. 1843. urtekoa da.

#### **Done Joanes Bataiatzailea eliza**

Monumentu ikusgarria, garaiera berean jarritako hiru habearte –lau tartekoak– dituen. Gangak, doriar zutabeen gainean eusten dira. «Hallenkirche» motako konponbidea da, zorrotz-zorrotza, eta azken fasean, leihotako leihoburuak eta apaingarririk eza direla eta, estilo errenazentistakoa. Ez dago eliza egin zeneko datari buruzko agiririk, baina XVI. mendearen azken urteez geroztik Juan Landeta, Martin Omar eta Domingo Iturretak diseinatu eta obrak egin zituzten. Geroago, XVII. mendean, Juan Agirrek eta Juan Ansolak, besteak beste, tenpluaren aurre-aurrean dagoen dorre soila eraikitzen jardungo dute.

**Erretaula nagusia.** Arrautza-oskolaren itxurako egitura handia, zur polikromatuko rokoko estilokoa, 1755ean eraikia; Silvestre Soriak diseinatu, Jeronimo Argos, Manuel Azebo eta Juan Munar eskulturagileen tailak erakusten ditu. Luis Foncuevak egin zuen polikromatua.

### **Gizaburuaga**

Landa-giroko elizate txikia, erdigunean etxe moderno ugari hasi dira.

#### **Santa Katalina eliza**

Tamaina handiko eraikina da, erdian habearte bat duena eta habeartearen alboetan, horma-bularren artean, kapera altu eta estuak; dena, erdiko burualde alakatua izan ezik, adreiluzko gangen bidez estalita dago. Dorre bat dauka itsatsia ipar-iparsortaldeko ertzean, masta altu eta kanpai-gelaren gaineko estaltze-kupularekin.

Antzinako eraikin errenazentista birmoldatzeko 1756. urteko proiektuaren egilea Ignazio Ibero da, eraikin horren aztarna bakarra nerbiodun burualdea bada ere. Erretaula flamenko txiki ezagunetik askatu zenetik –egun Bilboko Eliz Museoan dago erretaula hori– **Santa Katalina eta Andra Mariaren tailak** dira eraikin honek dituen arte mailako altxor aipagarrienak, lehendabizikoa xv. mendekoa, gotikoa, eta bestea xiv. mendekoa.

#### Oibarreko Andra Maria ermita

Errepidearen beheko aldean ageri da, eskuin aldera, errepideari lepoa ematen eta ibaiertzaren ondoan. Kareharriz landutako eraikin ederra, estalitako hiru tartetan diseinatua eta adreiluzko ganga duena. Ateburu baten azpitik sartu behar da, eta ateburu nabarmentzeko bozeldun moldurak ditu. Zaharregia zen eta kalte handiak zituen 1741ean oso-osorik berreraikitzeko agindua eman zenean.

Ermitako irudi nagusia xiv. mendeko **Andra Mariaren taila** gotikoa da, parrokiako sakristian gordeta dagoena.

#### Ospitale Zaharra

Ibaiaren eskuineko aldean ikus daitezke, urak baretzen diren inguruan eta urtean zehar Lekeitioko Antzar Egunerako potinak gorde ohi diren tokian, Domingo Leaegik garai batean sortutako ospitale handiaren hondakinak. Martin Ibañez Zalbideak eraiki zuen 1609an. Bao dintelduetako plaka leunezko moldurei begiratu gero, egileak moda klasizisten berri bazuela antzeman daiteke. Nekazaritza giroko paraje lau eta atsegin hau Mendexako udalerrriaren barruan dago.

#### Lekeitio

Ibiltaria, Ispasterreko Arropain auzotik sartzen da herri arrantzale honetan. Etxeek eta ermitak errepidearen bidetara jarraitzen diote, ilaran, ibaia eskuin aldera utziz. Askotan dira Lekeitio herri lasai honetan bisitatu behar diren toki interesgarriak.



#### Orrialde honetan, goian:

Lekeitioko Uriarte Jauregia, hiri barruko eraikin barrokoa (1667). Deigarria da eskailera, atari-arkupeko ardatz gisa jarria.

#### Orrialde honetan, behealdeko ezkerrean:

Lekeitio. Santa Maria. Inguru horretan ohi bezala, horma nagusian triforio gotikoak zulatu ziren, leihoen azpian.

#### Orrialde honetan, behealdeko eskuinean:

Santa Marian ganga guztiak gurutzekoak dira, eta haietatik, koru aldekoa konplexuena eta berriena.

#### 95. orrialdea:

Santa Mariako erretaula nagusia, gotikoa eta urre kolorekoa, erliebe lan bikaina da. Narrazio-multzoak dauzka, erliebe eta mukulu-irudiekin tailatuak.



### Zubieta jauregia

Lea ibaiaren azken bihurgunean toki zabala betetzen du, lehenago Adan Jarzaren dorrea zegoen tokian, xviii. mendean dorrearen ordeztu eraikin hau jarri baitzen. Patio txiki baten ingurua antolatutako jauregia da, aurrealdean albo banatan dorre handi bana dituela, eta erdian oso ohikoa den multzoa: sarrerak, balkoiak eta horma-hobi batek osatutako ardatza; hobi hori eraikinaren sustatzailearen –Adan Jarza familiaren alaba baten ezkontidea izan zen Migel Velez Larrea jauna– deboziozko Done Mikel santuaren taila bat jartzeko egina da. Madrildar bat kontratatu zuen 1716an jauregiaren diseinua egiteko, ustez Alberto Churriguera izeneko maisua, baina obrak eta osagarriak euskaldunek (Martin Zalduak eta Domingo Abariak apaingarriak) eta kantabriarrek (Andres de Monasteriok Done Mikelen taila) egin zituzten. Elorrioko Amezuatarrek egin zituzten forja-lanak.

Zubieta jauregian gehien baloratzen dena: jauregiaren tipologia bera, ez-aglomeratua; fatxadaren diseinua eta Erdiko ardatzaren apaingarri barrokoen aberastasun erretorikoa. Bizkaiko landa-jauregien artean, bikainetarikoa.

### Hirigintza eta harresiak

Maria Diaz Haroko andereak 1325. urtean eman zion Lekeitioki foru hiribilduaren titulua. Bi auzo zahar dauzka, bata hegoaldean eta bestea iparraldean, bigarrena dartsenara begira, eta biak osatzen zuten Lekeitioko jatorrizko hirigintza. Bigarren auzoa, arrantzaleena, kale luze bat da (Arranegi-Ezpeleta), zeharka hainbat kalek zatitua. Lehenengoa –Kanpillo izenekoa– Markinarako bideari (Dendari kalea, dendarien kalea) dago lotuta. Auzo historiko bi horien artean daude kokatuta eliza, udaletxea eta plaza, portu aldera, eta portua San Nikolas irlaren aurrez aurre, paisaia paregabeari begira.

Lekeitiok harrizko harresia du, 1334. urtean Alfontso xi. erregeak harresia

eraikitzeko agindua eman zuenetik. Kanpillo izeneko aldean ikus daiteke oraindik ere harresiaren zatirik zaharrena, altua eta harlangaitzekoa. Eta beste aldean, zeharkako suebaki bat, suak mozteko 1490az geroztik administratua, eta Abaroa etorbidean zehar luzatzen den –eta zati batean ikusi ere ikus daitekeen– beste harresi baten aztarnak. Toki-izenen bidez baino ez zaigu iritsi gaur arte garai bateko dozena erdi bat portaleren berri.

### Uriarte eraikin-multzoa

Berez bi eraikin nagusi ditu: Turpin dorre zaharra eta Uriarte jauregia. Jauregia, multzoaren erdian altxatzen den gotorleku zaharraren inguruan dago antolatuta.

Turpinek bere harlanduzko fatxada-ekin, ordea, gutxi du gotorlekutik, asko jauregi errenazentistatik, fatxadan tarteka eta ondo antolatuta, hainbat bao dituelarik. Alde batetik du sarbidea, palma-itxurako xvi. mendeko gainerako osagaien antzera dobela zabalen bidez.

Uriarte, bere aldetik, Turpinera lotuta dago pasabide baten bidez; Erdiko dorrearen bertikaltasunaz gain, Kanpillo aldera duen fatxada eta fatxadaren osaketa aipatu behar dira, tarteko solairuan arku hirukoitzeko bebarru-arekin eta «loggia»ko solairu noblearekin, eta eskailera axiala. Inguruko gehikuntza –jauregia– 1667ko eraikuntza da, Lucas Longaren apainduririk gabeko proiektuaren arabera egindakoa; Erdi Aroko dorrea, seguruen, xv. mendean hasierakoa izango da.

### Domingotarren monasterioa

Ortuarekin, elizarekin eta horma altuen bidez itxitako jabetzekin batera, Kanpilloko zati ederra betetzen du. Tenplua, ardatz errenazentista baten gainean xviii. mendean egindako hainbat konponketaren emaitza da, eta tenpluari itsatsita arkupe bat dago, 1669koa, Lucas Longak estilo barroko neurritsuan egindakoa, hainbat mendetan zehar Andra Maria elizaren zerbitzupean egon dena.



**Andra Maria eliza**

Itsas bazterrean, zuzenean itsasoraino jaisteko aukera izanik, Bizkaiko erai-kuntza erlijioso garrantzizkoenetako bat –eta ondoen hornitutakoa– dago eraikia, gehien bat gehitu zitzaizkion giroa eta elizpe berriagatik. Bertako bankaria zen Paskual Abaroa mezenasgoari esker eraiki zen, eta obrak gaitasun handiko Castor Zabala arkitektoari enkargatu zitzaizkion; beronek estilo neogotikoa erabili zuen, garaiarekin eta goretsi nahi zen eraikina- ren ardatzarekin bat zetorrena. Maila- katutako hiru habearte eta lau tartetan formulatu zuen eraikina, denak nerbio- dun gangen bidez estaliak, eta ondoren burualde poligonalaz ezarri zion. Habearte baxuen gaineko hormaren gainean, arku- dun galeria perimetral bat dago eraikia, triforio estu baten zati ikusgarria, euskal estilo gotikoko elizetan sarri erabili izan dena. Horrez gain landutako fatxada ikusgarria nabarmendu behar da –sarbi- deko mainelean Mariaren taila bat duena–, eta dorrea, albo batean eraikia eta fuste gotiko altua duena, kanpaigela barrokoa, fuste horren gainean eraikita dagoelarik. Azaldutakoak, kontrahorme- kin eta pinakuluekin batera, estilo gotiko- aren ezaugarriak jasotzen ditu; erdigunea, xiv. mendearen hasieran hasi bide zen eraikitzen –agian 1374an– eta aurrealdea mende bat geroago, argizuloari buruzko aipamena 1487koa baita. Data horretan eliza osoa erabiltzeko moduan zegoen.

**Erretaula nagusia.** Erdi Aroan landu- tako obren artean, Europako garrantziz- koenetakoa da, urre koloreko zurezko egitura gotiko eta mudejarrekoa, irudi txikidun oinazpiko edo idulki eta erreze- lez betea, eta Ama Birjinaren bizitzari buruzko irudien erliebeetarako hobiak dituena. Erretaulako polikromia. Santa Ana kapera-museoan gordetzen den **Pasioari buruzko triptikoa**, jatorriz flamendarra da, Lekeitioko portuak Her- beheerekin zituen harreman onen leku- koa, eta altuerliebe dotore hau erretaula nagusia baino pixka zaharragoa da. Maria Ibañez Uribarren eta Juan Perez Orma-

**Orrialde honetan:**

*Santa Mariako organoa, oraindik ere erabi- lia. Liturgiarako ebanisteria neogotikoaren erakusgarria (1856), eta haren atzean sabaileiho nagusia, trazeria flamigerokoa.*

**97. orrialdea, goian:**

*Santa Maria. Antiguako Ama. Taila erromani- koa, erretaula barroko batean jarria.*

**97. orrialdea, behean:**

*Santa Maria. San Andolin, herriko zaindaria. Taila barrokoa, egur polikromoan ederki landua. Palentzian erosi zuten, 1707an.*



egiren brontzezko bi hobi-laudek xiv. mendearen amaierako data dute eta horiek ere seguruen Flandesetik ekarritako piezak izango dira. Bitxiak dira Bizkaian. Girolaren sarreran kokatuta, ezkerreko aldean, **Eliza Zaharreko Andra Mariaren erretaula** barrokoa eta salomonikoa da, aipatu Andra Mariaren ohorez eraikia, eta Bizkaiko zaharrenetarikoa izango da, estilo erromanikokoa, 1200. urte ingurukoa. Beste aldean, Arrantzaleen Kofradiako patroia den **Done Petriren erretaula** dago, Andres Lekunberrik 1689an egindako ebanisteriako lan churriguereskoa.

**San Antolinen taila** eder hau, ezkerreko habeartean dagoena, 1707an erosi zen, Palentzian, eta organoa Parisko Cavaille-Coll markakoa da, estilo neogotikoko zur polikromatuko kaxa daukana, 1856koa. Kapera-museo horretan gordetako balio handiko arte-lanen artean, aipagarriena **Trinitate** edo **Hirutasunari** eskainitako taldea, XIV. mendeko alabastro polikromatua, Lekeitioko etxe batean aurkitutakoa.

**Paskual Abaroari** egindako monumentua Bertako pertsona ospetsu honi plazako toki eder batean jarritako monumentuaren bidez egiten zaio omenaldia: erretratu motako brontzezko eskultura bat, jesarrita eta erlaxatuta, harrizko oinarriaren gainean. Moises Huerta eskultoreak (1934) sinatzen du lan hau.

**Udaletxea**

Plazaren alde bat zehazten du eta behealdean arkupea dauka. Bi solairu dauzka, goikoa xix. mendeko eranskina da eta gainerakoa jatorrizkoa, xviii. mendeko (1706) lan barrokoa, Antonio Elorzak egindako burdinazko balkoi korritua (1732) eta Bernardo Abariari agindutako armariak (1722). Armarriek bakarrik erakusten dute egiazko estilo barrokoa.

**Oxangoiti jauregia**

Udaletxearen kale berean, xvii. mendean (1674) egindako eraikuntza aipagarria,

atearen ebanisterian eta teilatu-hegalaren harburuetan barrokismo metatuaren ezaugarriak erakusten dituena.

**Arrantzaleen kofradia**

Eraikin handia, bost solairukoa eta estilo neoklasikokoa. Done Petriren irudia gordetzen duen horma-hobiari lotua, irudi horren azpian «kaxarranka» izeneko dantza dantzatzen delarik. Lekeitiok, ohituretan aberastasun handia du.

**San Jose eliza**

Jesuiten ikastetxe zaharreko eliza hau, Josef Mendiolak utzitako ondarea da, 1688koa. 1708an eman zitzaizen lanei hasiera, eta Loiolako maisu batzuek hartu zuten parte lanetan: Martin Zaldua – beharbada diseinatu zuena –, Josef Iturbe, obra-zuzendaria, eta Ignazio Ibero, eta 1739rako eraikina prest zeukaten: habe-arte bat eta gurutzadura, elkarren artean komunikatutako behe kaperekin, gainean tribunak dituztela, barrutik oso hotza eta kanpotik zertxobait goxoagoa eta apainduagoa, sarbide aldean. Jesuiten irudiak erakusten dituzten erretaula ugari dauzka. Aurrealdeko erretaula nagusia polikromatu gabeko zurezkoa da, eta zutabeetan, erlaitzetan eta errematean agerikoa den rokoko estilokoa. Ignazio Iberok diseinatu zuen makina (1759) eta Juan Iturburuk aberastu zuen apaindurez.

**Uribarrendarren hilobia** gurutzaduraren eskuin aldean dago, etzanda dauden gorpu birentzako sarkofago bikoitzarekin, eta inguruan haien karitate-obrei buruzko irudiak daude, marmol zurian eta aingeru batek zaintzen duen ingurune arkitektonikoaren baitan. Casto Zabalak diseinatu zuen (1883) eta Bilboko eskultoreek zizelkatu zuten: Areitzaga, Garamendi, Larrea eta Basterrak.

**Nautika Eskola**

San Jose elizaren aurrez aurre, harlanduzko fatxadak ondo jasotzen du isabeldar aldiaren estilo neoklasikoa, hau da, aldi eboluzionatua. 1851. urtekoa da.

